



**LORENZO FERNÁNDEZ DE VIANA (1866-1929)**

Un escultor alavés

*Tobiak eta aingerua taldea.*

*Grupo de Tobías y el Ángel.*

Maria Sortzez Garbiaren katedralaren kriptan

Cripta de la Catedral de María Inmaculada, Vitoria-Gasteiz




Lorenzo Fernández de Viana es un escultor formado en el último tercio del siglo XIX y que desarrollará plenamente su obra artística en el primer tercio del siglo XX.

Es un buen ejemplo del artista que se inicia como artesano, ebanista en este caso, y que a base de esfuerzo y ansias de aprendizaje conseguirá avanzar y prosperar. Es de hecho, el único escultor alavés que se labró un nombre en el País Vasco y llegó a obtener reconocimientos en las distintas Exposiciones Nacionales de Bellas Artes a las que se presentó, destacando la medalla de tercera clase que obtuvo en la de 1908.

Viana se encuadra dentro de la tendencia tradicional de escultores de vena realista, con mucho oficio, que modelan de manera muy fiel y cuya mayor aportación se encuentra muchas veces en la elección de los temas.

Viana nace en la localidad riojana alavesa de Lanciego en 1866, en una familia humilde de labradores. Su interés por la escultura le lleva a trabajar como ebanista, primero en Logroño y después en Vitoria. Tras estos inicios más vinculados a la artesanía, decide convertirse en escultor y formarse para ello. De esta manera, se matricula en la Escuela de Artes y Oficios de la capital alavesa y en 1898 se instala en Madrid para acudir al taller de uno de los escultores más renombrados del momento, Aniceto Marinas, de lo que se mostraba muy orgulloso y al que siempre consideró su maestro.

En 1907, pensionado por el ayuntamiento de Vitoria viaja a París; allí, además de recibir su formación en la Academia Julian, visita muchos museos, salones



*Auto-retrato. Autorretrato. 1920.*  
Arabako Arte Ederren Museoa  
Museo de Bellas Artes de Álava

y exposiciones y se empapa del ambiente artístico de la ciudad. A su regreso, participa en la mayor empresa artística en la Vitoria del momento como es la construcción de la Nueva Catedral y ejerce como profesor de la Escuela de Talla y Modelado. Esta última, fue creada específicamente por la diócesis de Vitoria para formar escultores y tallistas ante la magnitud del proyecto.

En 1912 viaja a Argentina, donde desarrolla obras de envergadura e importancia, centrándose especialmente en la escultura aplicada a la arquitectura y que le permiten avanzar estilísticamente. No obstante, tras su regreso a Bilbao en 1917 y hasta su fallecimiento en dicha localidad en 1929, realiza una labor más convencional, muy plegada a los distintos encargos que recibe, aunque destaca por introducir temas más folklóricos, muy cercanos al sentimiento nacionalista que el autor profesaba.

Como la mayor parte de los escultores del momento, Fernández de Viana toca todos los géneros escultóricos y emplea materiales muy diversos. Destaca su labor como autor de escultura conmemorativa con el desaparecido monumento a Felipe Dugiols en Tolosa (Gipuzkoa). Hay que mencionar también su labor dentro de la escultura funeraria, costumbrista, de retratos y especialmente en la escultura religiosa. Es en este apartado donde desarrolla una obra más abundante aunque en ocasiones menos libre al estar sometido al encargo. Respecto a los materiales, además de la piedra, la madera y el mármol, el escultor utiliza muchas veces la



*Euzkadi, 1907ko Bartzelonako Nazioarteko Erakusketara aurkeztutako obra.*  
*Euzkadi*, obra presentada a la Exposición Internacional de Barcelona de 1907.



Felipe Dugiolsen omenezko monumentua Tolosan. 1901.  
Gaur egun desagertuta dago.

Monumento en Tolosa a Felipe Dugiols. 1901. Actualmente desaparecido.

escayola por abaratar los costes aunque ello haya repercutido directamente en la pérdida de muchas de sus obras.

No podemos dejar de mencionar su faceta como restaurador, algo muy común en los artistas del momento. De hecho, la restauración de la imagen de la Virgen de Estibaliz a finales de 1897 supuso un importante reconocimiento para su carrera de escultor y le ayudó a obtener la pensión municipal que le permitiría marchar a Madrid a continuar su formación.

En definitiva, nos encontramos ante un artista con un gran dominio de la técnica que destaca por el trabajo del modelado y la composición. Su formación y su viaje a París le abren otros horizontes que el asimiló e interpretó dentro de su estilo. A lo largo de su trayectoria avanza hacia un lenguaje más modernista y en ocasiones cercano al simbolismo, aunque sin perder nunca el peso del realismo.



**Museo de Bellas Artes de Álava**

Paseo de Fray Francisco, 8  
01007 Vitoria-Gasteiz  
Tel.: 945 18 19 18  
<https://arteederrenmuseoa.eus/>  
e-mail: [museobellasartes@araba.eus](mailto:museobellasartes@araba.eus)



Arabako Arte Ederren Museoa  
Museo de Bellas Artes de Álava

**Octubre 2021 • Marzo 2022**

**Horario**  
Martes a sábados:  
10:00 - 14:00 y 16:00 - 18:30  
Domingos y festivos:  
11:00 - 14:00  
Lunes cerrado (excepto festivos)  
Martes después de lunes festivo, cerrado

Entrada gratuita

**araba** **álava**  
foru aldundia diputación foral



**LORENZO FERNÁNDEZ DE VIANA (1866-1929)**

Arabako eskultorea



*Santo Domingo de Guzmán.*

Farolen Museoa  
Museo de los Faroles,  
Vitoria-Gasteiz

*Neurritasun.  
Templanza*

Arte eta Lanbide Eskola.  
Escuela de Artes  
y Oficios,  
Vitoria-Gasteiz

Viana etorri errealistadun eskultoreen joera tradizionalaren barruan kokatzen da; lanbide ibilbide luzeko eskultoreak dira haiek, oso modu fidelean modelatzen dutenak, eta haien ekarpenik handiena, sarri, gaien aukeraketa izaten da.

Viana Arabako Errioxako Lantziego herrian jaio zen 1866an, nekazari familia apal batean. Eskulturarekiko zuen jakin-minak ebanista aritzera eraman zuen, lehenbizi Logroñon, eta Gasteizen, gero. Hastapenak batik bat

Lorenzo Fernández de Viana eskultoreak XIX. mendearen azken herenean jaso zuen prestakuntza, eta XX. mendearen lehen herenean garatu zuen obra artistiko osoa.

Artisau gisa hasi —oraingo honetan, ebanista— eta ahaleginari eta ikasteko gogo biziari esker aurrera egitea eta hobetzea lortzen duen artistaren adibide ona da. Hain zuzen, Euskal Herrian ospea lortu zuen Arabako eskultore bakarra da, eta arte ederren erakusketa nazionalletara lanak aurkeztu eta haietan aitortua izan zen. Nabarmentzekoa da 1908koan lortu zuen hirugarren mailako domina.



*Nire alaba. Mi hija.* Hacia 1916-1920 aldera  
Arabako Arte Ederren Museoa. Museo de Bellas Artes de Álava

artisansari lotuak izan ziren, eta geroago eskultore bihurtzea eta horretarako prestakuntza jasotzea erabaki zuen. Horiek horrela, Arabako hiriburuko Arte eta Lanbide Eskolan matriculatu zen, eta 1898an Madrilera joan zen bizitzera, garai hartako eskultore entzutetsuenetakoa zen Aniceto Marinaren lantegian hasteko. Oso harro zegoen hartaz, eta beti izan zuen maisutzat eskultore hura.

1907an, Gasteizko Udalaren pentsioari esker, Parisera joan zen. Han, Julian akademian prestakuntza jasotzeaz gain, museo, areto eta erakusketa asko ikusi zituen, eta hiriko giro artistikoan murgildu zen. Itzuli zenean, garai hartan Gasteizen zegoen enpresa artistikorik handienan parte hartu zuen, hots, katedral berriaren eraikuntzan, eta irakasle aritu zen Tailu eta Modelaketa Eskolan. Azken hori berriaz sortu zuen Gasteizko elizbarrutiak, proiektuaren handitasuna ikusita eskultoreak eta tailugileak trebatzeko.

1912an Argentinara joan zen, eta han neurri eta garrantzi handiko lanak egin zituen, arkitekturari aplikaturiko eskulturaren arreta jarriz, bereziki, eta estilo aldetik aurrera egitea ahalbidetu zioten. Hala ere, 1917an Bilbora itzuli ondoren, eta han 1929an hil zen arte, artelan ohikoagoak egin zituen, jasotzen zituen enkarguetara oso makurtuak. Baina gai folklorikoagoak sartzeari nabarmendu zen, egilearen sentimendu nazionalistatik oso gertukoak.

Garai hartako eskultore gehienek bezala, Fernández de Vianak ere eskulturako genero guztiak landu zituen eta askotariko materialak erabili zituen. Nabarmentzekoa da Felipe Dugiolsen



Nekazaritzaren eta Merkataritzaren irudiak. 1916 inguruan.  
Imágenes de la Agricultura y el Comercio. Hacia 1916.  
Estación Constitución, Buenos Aires (Argentina)

omenezko eskultura desagertuaren egile gisa Tolosan (Gipuzkoa) egindako lana. Aipatu beharrekoa da, halaber, hilobi eskulturaren, eskultura kostunbristaren, erretratu eskulturaren eta, bereziki, erlijio eskulturaren barruan egin zuen lana. Atal horretan egin zuen lanik gehien, baina askatasun txikiagoarekin batzuetan, enkarguei men egin beharzagatik. Materialei dagokienez, harria, zura eta marmolaz gain, eskultoreak maiz eskaiola erabiltzen zuen, merkeago izan zedin, nahiz eta horrek zuzenean ekarri bere obretako asko galtzea.

Ezin aipatu gabe utzi bere zaharberritzaile alderdia, zeina oso ohikoa baitzen garai hartako artisten artean. Hain zuzen, 1897. urtearen amaieran Estibalizko Ama Birjinaren irudia zaharberritu izanak aitortpen garrantzitsua ekarri zion bere eskultore ibilbideari, eta udalaren pentsioa eskuratzen lagundu zion, trebatzen jarraitzeko Madrilera joateko.

Azken batean, teknika oso ondo menderatzen duen artista da, modelatze eta konposizio lanengatik nabarmen dena. Jasotako prestakuntzari eta Parisera egindako bidaiari esker beste aukera batzuk ezagutu zituen, eta bereganatu eta bere estiloaren barruan interpretatu zituen. Bere ibilbidean zehar, hizkuntza modernistagarantz eta, batzuetan, sinbolismotik gertuko hizkuntzarantz egin zuen, baina errealismoaren pisua inoiz galdu gabe.



**Arabako Arte Ederren Museoa**

Frai Francisco ibilbidea, 8  
01007 Vitoria-Gasteiz  
Tel.: 945 18 19 18  
<https://arteederrenmuseoa.eus/>  
e-mail: [museobellasartes@araba.eus](mailto:museobellasartes@araba.eus)

**Urria 2021 • Martxo 2022**

**Ordutegia**  
Asteartetik larunbatera:  
10:00 - 14:00 eta 16:00 - 18:30  
Igande eta jaiegunetan:  
11:00 - 14:00  
Astelehenetan itxita, jaiegunetan izan ezik  
Astelehena jaieguna izan bada, asteartean itxita  
Sarrera doan



Arabako Arte Ederren Museoa  
Museo de Bellas Artes de Álava

**araba** **álava**  
foru aldundia diputación foral